

AURKEZPENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoko bost ikasle gara eta, lan honen bidez, natura inguruneari buruzko proposamen didaktiko bat aurkeztuko dugu. Kasu honetan, kontinente bakoitzeko ekosistema bakoitzean banatzen diren animalien aurkezpena egingo da, hauen ezaugarri fisikoak eta jokaerak ezagutzeko. Jarduera hau 5-6 urteko gelan egiteko proposatua izan da, hau da, Haur Hezkuntzako azkeneko kurtsoan.

Lana bi atal nagusietan banatuko da: marko teorikoa eta marko metodologikoa. Marko teorikoan gure lanak betetzen dituen kurrikulumeko arloak eta kontzeptuak azalduko da, baita guk proposatzen ditugun bestelako helburu, eduki, ebaluazioa irizpide eta baloreak. Gainera, “Natur Ingurunearen Didaktika” irakasgaien emandako teoriarekin lotura egingo da, jardueraren helburu didaktikoa argi gera dadin.

Bestalde, marko metodologikoan egingo diren jardueren azalpena egingo da, kasu honetan joko pare bat emandako gaiarekin lotuta. Gainera, erabiliko den materialaren aurkezpena egingo da, baita jardueran erabilgarriak izan daitezkeen baliabideak ere.